

MINGAIN URDINEKO Serotipo 8ko EREMU MUGATUKO MUGIMENDUAK

TXERTATU GABEKO ustiatagietako BEHI- AZIENDA

Mugitzeko baldintzak

- Animaliek, lekualdatze egunean, Mingain Urdinaren sintoma klinikoak ez izatea.
- Aldez aurretik desintsektatuko dira. Animalien desintsektazioa PCRrako laginak hartu baino 14 egun lehenago hasi behar da.
- PCR NEGATIBOAREN emaitza (MINGAIN URDINAREN ALBAITARIAREN ZIURTAGIRIAREN bidez egiaztatuko da emaitza)
- Animaliak garraiatzen dituzten ibilgailuak desintsektatu egin behar dira kargatu aurretik (GARRAIATZEKO IBILGAILUAREN DESINTSEKTAKETA EGIN IZANAREN ADIERAZPEN ARDURADUNA)

Prozedura

Mingain Urdinaren bektoreen aurka babesteko animaliak desintsektatzeko, espezie jakin horretarako baimendutako albaitaritzako sendagaiak erabiliko dira, albaitariak aginduta.

https://www.mapa.gob.es/es/ganaderia/temas/sanidadanimal-higienal-higien/listainsecticidasentornoganadero_tcm30-520353.pdf

Birologiarako edo PCRrako laginak hartu baino 14 egun lehenago hasi behar da animalien desintsektazioa.

Desintsektazioak jarraitua izan behar du animaliak ustiapena utzi eta norako ustiatagira iritsi arte.

Animalien titularraren edo edukitzailearen betebeharrak:

- Erregistratu tratamendua ustiategiaren tratamenduaren erregistro-liburuan.
- Titularra da beharrezko tratamenduak etengabe aplikatzeko ardura duena, animalia bektoreetatik etengabe babestuta egon dadin arauzko aldietan.
- Animalien titularra da beharrezko tratamenduak etengabe aplikatzeko arduraduna, animalia bektoreetatik etengabe babestuta egon dadin.
- Animalien titularra izango da, bere erantzukizunpean, animaliak behar bezala desintsektatzen dituena eta USTIATEGIKO ANIMALIEN DESINTSEKTAZIOARI BURUZKO ADIERAZPEN ARDURADUNAREN bidez egiaztatzen duena.
- Animalien titularrak tratamendua hasten den egun berean jakinaraziko dio albaitariari.

Aurreko erregistroak egiaztatu eta PCRa egin ondoren (emaitza NEGATIBOekin), albaitariak "8 serotipoko EREMU MUGATUTIK ANIMALIAK GARRAIATZEKO MIHI URDINEKO ALBAITARIAREN ZIURTAGIRIA" beteko du.

Informazio hori albaitariak bidaliko dio Abeltzaintza Zerbitzuari, hark egingen baitu animalien mugimenduaren agiria.